

JANASKE

3. FUNTZEZKO ELKARTEAK

Menu desberdinak izango dira, adibidez; 1. menua zeliakoentzako, 2. begetarianoentzako eta 3. barazkijaleentzako. Baina beste menu bat ere egongo da, edozein janari mota jaten dutenentzako. Gu bostok bakarrik Janaskeren jabeak izatea erabaki dugu, eta gure enpresa kooperatiba bat izatea. Ez dugu bazkiderik izango eta gure hornitzaileak supermerkatuak izango dira normalean; iraungitze-data hurrengo egunean bukatu egiten diren produktuak erosiko ditugu. Bestalde, herriko eta inguruko nekazariei supermerkatuak erosten ez dituzten barazki motxak, hau da, supermerkatuan erakusteko desegokiak direnak aprobetxatuko ditugu. Horrekin, Durangaldeko nekazaritza eta ekonomia sustatzea lortuko dugu. Produktu freskoak salduko ditugu, ez gara plastikoaren kontsumitzaileak izango eta nekazariei haien produktuak saltzen lagunduko diegu. Eskoletako jantokietan janari asko ere botatzen da, hori dela eta, jendez gainezka gaudenean janari prestatua izatea oso ondo etorriko zaigu. Gure bezeroak denbora asko jateko ez itxaroteko. Gaska enpresarekin elkarlanean ere arituko gara batzuetan, haien bazkideak izango gara, haiek janaria emango digute eta trukean publizitate ona lortuko dute. Azkenik, egunen batean elikagaien bankuren batean janaria soberan geratzen bada, guk aprobetxatu egingo dugu. Honekin guztiarekin, gure jantokian zerbitzatzeko janaria beti egotea ziurtatuko dugu eta aldi berean elikagaien isurketaren kantitatea murriztuko dugu.